**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO MARTXOAREN 16AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2016ko martxoaren 16ko 09:35 zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren esanetara (O/E EHBILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

**O/E EHBILDU**

- Jon TXASKO ORGILLES
- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria Irabazi**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

Bertan dago, Egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin idazkari nagusia.

**1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko martxoaren 2an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko martxoaren 2an egindako bilkurari dagokion aktaren berri eman ondoren.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dute.

**2. "GAZTELUTXO, erabilera anitzeko harrera zentroaren kudeaketa integrala, aldi baterako harrera, laguntza eta tailer okupazionalen bidez gizarteratzeko Proiektua" emateko sinaturiko kontratuaren aldaketa.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 16 DE MARZO DE 2016**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:35 horas del día 16 de marzo de 2016, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Julen Mendoza Pérez (O/E EHBILDU), los siguientes Concejales

**O/E EHBILDU**

- Jon TXASKO ORGILLES
- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria IrabaziZ**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

Asiste y da fe del Acto la Secretaria General Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 2 de marzo de 2016.**

Leída por la Secretaria General el Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 2 de marzo de 2016.

Se aprueba sin observación alguna

**2. Modificación del contrato suscrito para la "Gestión integral del Centro de Acogida polivalente GAZTELUTXO, del Proyecto de acogida temporal, acompañamientos y Talleres ocupacionales para la inclusión social".**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

“GAZTELUTXO erabilera anitzeko harrera zentroaren kudeaketa integrala, aldi baterako harrera, laguntza eta tailer okupazionalen bidez gizarteratzeko Proiektua” emateko, “EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL”-ekin kontratua sinatu da.

Visto el contrato suscrito con “EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL” para la prestación de la “Gestión integral del Centro de Acogida polivalente GAZTELUTXO, del Proyecto de acogida temporal, acompañamientos y Talleres ocupacionales para la inclusión social”.

Leire Sein-ek, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariak, txostena eman du. Bertan adierazi du beharrezkoa dela zerbitzu gehiago ematea eta horrek kontratuaren prezioaren igoera dakarrela, 44.990 eurokoa.

Visto el informe de la Directora de Servicios Sociales, Leire Sein, en el que señala la necesidad de ampliar el servicio, lo que supone un incremento del precio del contrato en 44.990 euros.

Interesatuak bere adostasuna adierazi du.

Visto que el interesado ha mostrado su conformidad.

Gizarte Zerbitzuetako Ordezkariak proposamena egin du.

Vista la propuesta de la Delegada de Servicios Sociales.

Udal Kontuhartzaileak txostena eman du.

Visto el informe emitido por la Sra. Interventora Municipal.

Kontratazioko Teknikariak txostena eman du.

Visto el informe emitido por el Técnico de Contratación.

Kontratazio Mahaiak txostena, 2016ko martxoaren 7koa, eman du.

Visto el informe de la Mesa de Contratación de 7 de marzo de 2016.

Kontratazio Mahiaren Buruaren proposamenez.

A propuesta de la Presidenta de la Mesa de Contratación.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- “EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL”-ekin, “GAZTELUTXO erabilera anitzeko harrera zentroaren kudeaketa integrala, aldi baterako harrera, laguntza eta tailer okupazionalen bidez gizarteratzeko Proiektua” emateko sinaturiko kontratua ZABALTZEA, 44.990 euroko zenbatekoarekin, lizitazioa arautu zuten baldintza-agiriek

1º.- AMPLIAR el contrato suscrito con “EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL”, para la “Gestión integral del Centro de Acogida polivalente GAZTELUTXO, del Proyecto de acogida temporal, acompañamientos y Talleres ocupacionales para la inclusión social”, por un importe de 44.990 euros, de conformidad con lo establecido en los pliegos de condiciones que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ezarritakoaren arabera, hala nola Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariak, emandako txostenari jarraiki. (Zorpekoak: A1299-2015 eta A-1292-2015)

2.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari hamabost (15) laneguneko epean, handitzearen jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, **2.249,50 euro** zenbateko behin betiko bermea jar dezan.

rigieron la licitación, así como en el informe emitido por la Directora de Servicios Sociales. (Contraídos: A-1299-2015 y A-1292-2015)

2º.- REQUERIR al adjudicatario para que en el plazo de quince (15) días naturales, contados desde el siguiente a aquel en que le sea notificada la ampliación, proceda a la constitución de la garantía definitiva por importe de **2.249,50 euros** suplementarios.

**3. "ERRENTERIAKO OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA (2015-eko Maiatza)" izeneko dokumentuaren Ekintza-Plana (42 orrialdetik 70 orrialdera) onartzea.**

2015eko uztailaren 6an, ANDER IRAZUSTA ARAMENDI (BIZIKER) Jnak. "Errenteriako oinezko eta bizikleta bidezko Mugikortasun-Plana (2015eko Maiatza)"-ren behin betiko dokumentuaren kopia aurkeztu du, publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez 2013ko urriaren 17an esleitua 22.869 eurotan (BEZa barne).

Errenterian, Euska Herrian eta Europar Batasunean sortu den mugikortasun-maila handia dugun garapen-ereduaren ondorioa da, eta gero eta kezka iturri handiagoa da jendartean, baita bere erakunde publikoetan eta sozialetan ere, osasunean eta Ingurumenean dituzten eraginengatik. Horrela, bada, trafikoaren metaketa dela-eta handiagotzen ari den kezka eta kutsadura indizeak dira hausnartzea eta konpromiso publikoa merezi duten gaiak mugikortasun iraunkorra lor dadin, ezinbesteko baldintza baita ingurumena hobetzeko.

**3. Aprobación del Plan de Actuación (de la pag. 42 a la pag.70) del documento denominado "PLAN DE MOVILIDAD PEATONAL Y CICLISTA DE ERRENTERIA (Mayo 2015)".**

El día 6 de julio de 2015, D. ANDER IRAZUSTA ARAMENDI (BIZIKER), presenta copia del documento definitivo del "Plan de Movilidad peatonal y ciclista de Errenteria (Mayo 2015)", adjudicado el 17 de octubre de 2013 por 22.869 euros (IVA incluido) mediante procedimiento negociado sin publicidad.

Los intensos índices de movilidad que se generan en Errenteria, en Euskal Herria y en la Unión Europea, son consecuencia del actual modelo de desarrollo, y ello es motivo de preocupación creciente en nuestra sociedad y en sus organizaciones públicas y sociales, tanto por su impacto sobre la salud pública como en el Medio Ambiente. Así, la creciente preocupación por la congestión de tráfico y los índices de contaminación son cuestiones que merecen una reflexión y un compromiso público para lograr una movilidad sostenible, como condición indispensable para la mejora ambiental.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2016ko otsailaren 23an Kontuhartzaileak bere txostena eman du.

Con fecha 23 de febrero de 2016 la Interventora municipal emite informe.

2016ko martxoaren 3an Ingurumeneko goi mailako teknikariak, udal arkitektua eta Trafikoko teknikariak aldeko txostena eman dute.

Con fecha 3 de marzo de 2016 el Técnico Superior de Medio Ambiente, el Arquitecto Municipal y el Técnico de Tráfico informa favorablemente.

2016ko martxoaren 9an proposamen honen berri eman da Ingurumen Batzorde Informatiboan.

Se da cuenta de esta propuesta en la Comisión Informativa de Medio Ambiente de fecha 9 de marzo de 2016.

APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

LEGISLACIÓN APLICABLE

599. zenbakiko Dekretua, 2015eko ekainaren 19a, Tokiko Gobernu Batzarrean alkatea ordezkatzekoa.

Decreto núm. 599, de fecha 19 de junio de 2015 de Delegación del Sr. Alcalde en la Junta de Gobierno Local.

Aipaturiko ikusirik, honen bidez:

A la vista de lo expuesto, por la presente:

Ingurumeneko Delegatuaren proposamenez.

A propuesta del Delegado de Medio Ambiente.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

***1.-"ERRENTERIAKO OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA (2015-eko Maiatza)"*** *izeneko dokumentuaren* ***Ekintza-Plana*** *(42 orrialdetik 70 orrialdera)* ONARTZEA.

1.-APROBAR el ***Plan de Actuación*** *(de la pag. 42 a la pag.70) del documento denominado* ***"PLAN DE MOVILIDAD PEATONAL Y CICLISTA DE ERRENTERIA (Mayo 2015)".***

2.- Onartutako Ekintza-Planaren edukia Udaletxeko web orrian ARGITARATZEA.

2.-PUBLICAR en la página web del Ayuntamiento el contenido del Plan de Actuación aprobado.

----------------

---------------



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net